

Bertatik Bertara kanpaina Bortzirietan, “gure herria, gure hizkuntza eta gure produktuak” aldarrikatzeko

UEMAk (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak) antolatutako kanpaina hau ekainaren 19an hasiko da, eta udalerrri euskaldunek beren baitan biltzen duten aberastasuna ikusaraztea eta aldarrikatzea du helburu. Herritarrak zein bisitariak sentsibilizatzeko ekimena izanen da, eta horrekin bat egin dute Bortzirietako Udalek, Uraren Bailarak eta Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak.

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, aldaketa handia izanen du batetik bertara bidaiatzeko eta atsedeen egunak antolatzeko moduak. Beraz, inoiz baino gehiago, gure bazterrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izanen dugu hurrengo hilabeteotan. Horregatik, Bortzirietako udalek bat egin dute UEMAk abiatutako Bertatik Bertara kanpainarekin, herritarrei eta bisitariari erakusteko udalerrri euskaldunak zer-nolako altxorrak diren, bertatik bertara zenbat gozaten ahal den nabarmenduz, bertako produktuekin, bertako kulturarekin eta bertako ekonomian oinarritutako garapenari eskutik helduta. Betiere udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela ahantzi gabe.

“Gure bazterrak ezagutzera eta maitatzera gonbidatzen zaitugu, eta horrekin batera, baita horren bertakoa den eta horren bizirik dagoen hizkuntzaz gozatzera ere” dio denda, jatetxe, ostatu eta zerbitzu sektorerako prestatutako karteletan eta mahai-gainekoetan ageri den testuak.

Udalak harremanetan jarriko dira bertako merkatari, ostalari eta zerbitzu sektoreko eragileekin kanpainaren berri emateko eta euskarriak beren esku uzteko, eragile horiek baitira herritarrengana eta bisitariengana heltzeko bitartekari egokienak.

Irudiak eta euskarriak

Kanpainaren irudi nagusia honako hau izanen da:



Horretan oinarrituta, bi euskarri fisiko izanen ditu kanpainak:

KARTELA



JATETXEETARAKO MAHAI GAINEKOA

